

GUTUNA

Kaixo ibiltari maitea:

Ibiltari bakartia zara
ezer jakin barik bidean,
sargoi dago zure bihotzean
gogoz kontra onartzen dituzu egun berriak.

Ilargiaren argitan zoaz
pentsamendu hautsiak lotu nahian.
Ahaztu zaizu zer den poza
kale hotzen artean.

Egoera garrantz horretan, ezer eduki barik
gauaren oihalean babesten zara
lo har dezaten
zure bizitzako egun goibelek.

Leihopetik zaitut ikusi egunero,
zure aztarnak ditut ikusgai gauero
kaleetan gora, kaleetan behera
joanik ez duzu inora.

Hodeiekin egin duzu apustu
zeinek isuri malko gehien,
galdurik da irria zure begietan
amets garrantzen artean.

Zure pausu bakoitza gorderik dut nire barnean
miresten zaitut leihoaren atzean.
Negu hotzean zure oihu hautsiak
ditut entzuten nire ametsetan.

Ez dago katerik zu lotuko zaituenik,
ez dago espetxerik zu bertan egongo zarenik.
Zure zori txarrean aske zara,
ez dago zure ametsak zapalduko dituenik.

Sumindurik dituzu zure gogoetak
uretan erretzen zara, sutan ito.
Mundua aurka duzu
baina eutsi goiari.

Zu lasai ordea, ez dago sufrimendurik
lagun baten babesean hautsi ez daitekeenik.
Eta ni hemen nauzu
kalera bidean.

Agurtzeko garaia da.
Gutun hau zu anima zaitezen
dut idatzi eta sentitu.
Leihotik zaindu eta babestuko zaitut.

AGUR!!!